



**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteazkena  
2010-03-24**

VIII. URTEA 1960. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)



Berritze lanak maiatza eta ekaina artean hasiko dituzte eta abenduan amaitzea aurreikusi dute. R. CALVO

## BERDEGUNE BERRIA ZUMARDIAUNDIAN

**TOLOSA** Urteetan utzita egon ostean berritze lanak egingo dituzte Parkean; bidegorria, pasealekuak, 'egongela berdea'... egingo dituzte » 3



Kontsumo taldeek baseritarren eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena bultzatzen dute. HITZA

## Hasi dira Tolosaldean kontsumo taldea sortzeko lehen urratsak ematen

**TOLOSA** Biolur, Tolomendi, EHNE eta Lurgintzak bultzatu dute ekimena eta informazioa zabaltzeko hitzaldia egingo dute gaur 19:00etan Zerkausion » 6



Ugane auzora doan errepidean trafikoa asko ugartuko da. A. IMAZ

## Ikaztegieta Udalak martxa antolatu du AHTren lanetara

**TOLOSA** Proiektuaren lanek Uganen sortutako «arazoekin» auzokideak kexu agertu dira » 2

## Udala eta Guraso Elkartea Legebiltzarrean izango dira gaur

**LARRAUL** Eusko Jaurlaritzak Pello Errota eskolaren izaera aldatu nahi duela salatu dute » 5

## Mobilizazioak pentsio sistemen erreformen aurka

**GIZARTEA** Gehiengo sindikala kalera irtengo da larunbatean, lan erreforma salatzeraz » 4

# Abiadura Handiko Trenaren lanek eragozpenak sortu dizkiete ingurukoiei

**Tolosa** » Uganeko auzokideak errepidearen egoeraz kexatu dira; Ikaztegieta Udalak martxa bat antolatu du.

## ASIER IMAZ

Tolosako Ugane auzoan, Ikaztegieta ondoan, hasi dituzte Abiadura Handiko Trenaren lanak. Oraindik ingurunea prestatzen ari baldin badira ere, auzotarrak kexu agertu dira. Ikaztegieta Udalak, AHT Gelditu! Elkarlanaren laguntzarekin, martxa bat antolatu du obretara. Ekimena bihar, hilak 25ean, burutuko da, 19:00etan udaletxe aurretik abiatuta.

## Uganeko auzokideak kexu

Ikaztegieta ondoan aurkitzen da Tolosako Ugane auzoa. Bertan «txikizio izugarriak» egiten ari direla salatu zuen Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak: «Zuhaitzak errokit moztuz, baserriaren bideak obretarako makinariaren bidaierako erabiliz, bertakoak aztoratuz eta abar luze bat».

Auzokideak ere ez daude gustura, izan ere, martxoaren 10ean Tolosako udaletxean eskaera orri bat sartu zuten, auzoko errepidean ditzuten arazoan berri emanaz. Eu-



Tolosako Ugane auzora doan errepidea. A. IMAZ

ren esanetan, Abiadura Handiko Trenaren lanak egiten ari diren kamioi eta ibilgailuek errepidea baldintza txarretan uzten dute. Bertan bizi behar dutenak eurak direla ere gogorarazten dute eta azkenik, Tolosako Udalarri, errepidea garbi mantentzeko neurriak har ditzan

eskatzen diote. Udaletxean sartutako eskari orria auzotar guztiak sinatu zuten.

## Tolosako Udalaren erantzuna

Olatz Peonek, Tolosako Udaleko Obra, Zerbitzu eta Auzoetako zinegotziak, azaldu duenez, «Abia-

dura Handiko Trenaren obra dela eta, Ugane bidean lanek irauten duten bitartean bidea ahalik eta garbien mantentzeko konpromisoa hartu zuen ETSk (Eusko Trenbide Sarea). Horretaz gain, obra amaitsu ondoren bidea gutxienez oraingo egoeran uzteko konpro-

misoa ere hartu zuen. Horretarako, Udalak erreportaje grafiko bat egin zuen, argazki eta bideo baten bidez. Hurrengo astean idatziz gatzatuko da konpromiso hau».

## Ikaztegieta Udalaren martxa

Ugane auzoko obretara martxa bat antolatu du Ikaztegieta Udalak, «AHT Gelditu! Elkarlanaren laguntzarekin». Bihar, 19:00etan irtengo da udaletxe aurretik.

Udaletik jakinarazi dutenez: «Lehenago astean hitzaldi bat antolatu zen herrian, informazioa zabaltzeko. Abiadura Handiko Trenaren obrak isil-isilik etorri dira herrira eta jende asko ez da ohartu oraindik. Martxa horregatik antolatu dugu, jendeak bere begiez betetan egiten ari direna ikus dezan».

Udalarentzat herriak «kalte zuzenak» jasango ditu. «Lurrak Tolosaldeko baldin badira ere, proiektu honek mugimendu asko ekarriko du: gaur edo bihar egingo duten bost hantetako zubia, honen inpaktu bisuala, zaratak, obrak... eta kalte hori horregatik da, Ikaztegieta metro gutxira. Orduan, nolabait kaltetu zuzenak izango gara».

Bestalde, Udalak lanen inguruan «ezer ez dakiela» azaldu du: «Ez zaigu ezer jakinarazi; ez dugu inongo informaziorik jaso eta dakiguna kanpotik jasotakoa besterik ez da».

Azkenik, inguruko herritar guztiak bihar martxan parte hartze- ra gonbidatu ditu Ikaztegieta Udalak.

## G Gutunak

### Lan eta pentsio erreformarik ez! Greba Orokorra!

Erretiroaren adina 67 urtera arte atzeratzeko eta pentsio bat edukitzeko eskubidea eta hau kalkulatzeko urteak gehitzeko proposamena, kaleratzea merkatzeko helburuarekin, lan erreforma berri bat inposatzeko erabakiekin batera, langile guztiak eta bere familiak eraso ikaragarria da. Zapateroren gobernuak aurrekontuak egokitzeko plan oso gogor bat ere onartu du (hiru urtetan

50.000 milioi). Honek osasun, hezkuntza eta zerbitzu sozial publikoetarako diru gutxiago izatea esan nahi du. Hau da, PSOEren gobernuak bere politika ekonomikoan eskuinera urrats kualitatibo bat eman du, CEOE patronal espainiarren eta bankaren presioei men eginez.

Atzeraldia hasi zenetik, mundu osoko gobernuak eta sindikatu gehienetako zuzendaritzek ekonomiararen mirarizko errekuperazio batean jarri dute konfiantza «normaltasunera» itzultzeko. EREak, soldata jaitsierak eta esku-

bideen murrizketak onartu dituzte eta langileen borroka elkartzea saihestu dute. Baina esperientziak erakutsi du langileen sakrifizioak ez direla nahikoa patronalaren eta bankaren eskaerak asetzeko. Nahiz eta azken urteetan gure eskubideetan zertara egin dugun, orain gehiago nahi dute, kaleratzea librea nahi dute, lan harremanen negoziazioarekin bukatu nahi dute...

Langile mugimenduen konkista historiko guztiak desegin nahi dituzte.

Egin diren kontzesioek, eta asko izan dira, orain onartezina den pentsio erreforma baten eta kaleratzea merkatu eta negoziatio kolektibo suntsituko lukeen lan erreformaren saria jaso dute.

Pentsioen erreformak eta lan erreformak sindikatuen aldetik erantzun garbi eta eraginkor bat behar du. Martxo manifestazioek, larunbat honetakoekin batera, lehen urratsa izan behar dute greba orokorra antolatu eta ondoren langile klasearen mobilizazio bateratuekin jarraitzeko. Greba orokorra, PSOEren gobernuaren erasoierantzuteko eta biztanleen gehiengoaren aldeko neurriak

hartzera behartzeko izan behar du. Borrokarekin soilik lortuko dugu Madrilgo PSOEren gobernuak eta Patxi Lopezen Eusko Jaurilaritzak diru publikoa langabetei eta arazoak dituzten langile familiei laguntzeko erabilteza eta ez bankariei oparitzea.

Krisiaren aurka borrokarekin eta mobilizazioarekin defendatu behar dugu geure burua. Hori da Greziako eta Portugalgo langileek hasi duten bidea, hemen bezala jasaten duten antzeko ofentsibaren aurrean. LABek Estatu frantziarrean antolatutako greba orokorreari emandako babesaren bideari jarraituz, sindikatu guztiak Estatu mailako Greba Orokorreko dei bateratua egin behar dute eta lanean hasi lantoki guztietan asanbladak deituz. Hauetan, gure arazo nagusienak konponduko lituzkeen plataforma aldarrikatzaile bat behar dugu.

- Erretiroaren adina luzatzearen aurka. Erretiroa 60 urterekin eta soldataren %100arekin eta errelebo kontratuak eginez.

- Lan erreforma oren aurkako jarrera tinkoa. Enpleguaren ziurtasuna eta duintasuna. Soldataren

murrizketarik ez eta galdutako erosteko ahalmenaren errekupe-rtzea.

- 1.200 euroko langabezia sorospen mugagabe bat bermatu behar da langabete guztiak lanpostu bat aurkitu bitartean eta aldi berean, hauen hipoteken balioagabetea. Legez 35 orduko lan astea, langile guztien artean dagoen enplegua banatuz, baina soldata eta eskubide guztiak mantenduz.

- Kaleratzeen aurrean EREak ez dira konponbidea. Lanpostu guztiak salbatzeko, sindikatuak krisian dauden enpresen nazionalizazioa eskatu behar dute, indemnitzaziorik gabe eta langileen eta hauen erakundeen kontrolpean.

- Langileen batasuna banaketa guztien gainetik eta nazioen autodeterminazio eskubidea.

- Bankaren, monopolioen eta latifundioen nazionalizazioa langileen kontrolpean, horrela azpigiatur, etxebizitza, hezkuntza eta osasun publikoan programa handiak martxan jarri.

Hau da langileok behar dugun sindikalizazioa, hau da sindikatuek egin behar duten sindikalizazioa.

**Ibon Artola.** 'Euskal Herria Sozialista' aldizkariaren izenean.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Tolosa eta Ibarra lotzen dituen Zumardiaundia Parkea gaur egun. R. CALVO

## Zumardiaundia Parkea «aisialdi eta gozamen gune» izatea nahi du Udalak

**Azpiegiturak** » Gunea eraberritzeko lanak ekainean hasiko dituzte eta abenduan bukaturik egotea aurreikusten dute.

### ASIER IMAZ

Tolosa eta Ibarra elkartzten dituen Zumardiaundia Parkea «berdegune» bilakatu nahi du Tolosako Udalak. Horretarako Manolo Jimenez arkitektoak diseinatu eta idatzi duen proiektuan oinarrituko dira.

Ekainean hasiko dira lanak eta urtea amaitu aurretik bukatutzat jo nahi dituzte. Proiektuak 1.200.000 euroko aurrekontua dauka eta Tolosako Udalak finantzatu du.

Egitasmoa herenegun aurkeztu zuten udaletxean Jokin Bildarratz alkateak, Manolo Jimenez arkitektoak, Jose Mari Arsuaga Goroldiko arduradunak eta Lurre Peñagarikano ingurugiro eta tokiko agendaren arduradunak.

### Zuhaitz berriak, bidegorria, argiak, iturri zaharra...

Zumardiaundia Parkea suspertzeko asmoz garatu dute proiektua. Horrela, Udal ordezkariak

azaldu dutenez, «lorategi eta zuhaitz berriez jantzitako aisialdi eta gozamen gune berri bat izango dute tolosarrek». Helburua Tolosako eta Ibarra herri guneak lotuko dituen funtsezko ardatza bultzatzea dela ere aipatu dute.

*Liquindambar* espezieko zuhaitz berriak apirilean hasiko dira landatzen. Ondoren urbanizazio lanak etorriko dira: «Parkeko erdigunea lorategi handi bat egongo da; egun dauden bi zuhaitz ilarek mugatuko duten *egongela berdea*. Egindako txosten botanikoek diotenez, herritarrek goza dezaten, zapaldua izan daitekeen

belar mota zehatz bat izango du *egongela berdea*».

Ibairen ertzean berriz, bi ibilbide aurreikusten dira. Hauek, erreka-berriaren zubi berri batekin lotuko litzake. Bestalde, egun bertan aurkitzen diren elementu esanguratsuak berritu eta bere horretan jarraituko lukete, iturri apaingarriaren kasu. Parkean komun publiko bat jartzeko asmoa ere azaldu dute.

Azkenik, higikortasun jasagarriaren sustapena bultzatuz, «10 kilometro luzeko» bidegorrien sarearekin bat egingo luke Zumardiaundia Parkeak.



Zumardiaundia Parkeko iturri apaingarria berritzeko asmoa azaldu dute. HITZA

### » AURREKONTUA

# 1.200.000

- **Lanen iraupena.** Sei hilabete.
- **Hasiera data.** Maiatza-ekaina.
- **Amalera.** Abendua.
- **Ekipamendua.** Bidegorria, ibaieren ertzean pasealekuak, zubi berria, *egongela berdea*, belardia, iturri berriak, harrizko eserleku berriak, argiak, zuhaitzak, komunak...

### 2005EAN LORTU ZEN PROIEKTURAKO DIRUA

Zumardiaundiako Parkearen eraberritzea «aspalditik datorren kontua da». Manolo Jimenez arkitektoak 1991. urtean irabazi zuen Parkearen «aurpegi aldaketa» honen inguruko lehiaketa. Ondoren, Igarondo igerilekuaren toki aldaketa etorri zen. 2005ean berriz, Tolosana paper fabrika desagertu zen. Jokin Bildarratzen esanetan Udalak bi zama jarri zituen orduan: «Bat udaletxearentzat orain egiten ari garen babes ofizialeko etxe kopurua igotzea, alokairuan aterako ditugunak, eta bestea, diru bat guretzat ateratzea parkearen eraberritzea finantzatu ahal izateko. Horiek izan ziren bi akordioak».

Proiektuaren bigarren faseak, Zumardiaundiako maldak, oraingoz itxaron egin beharko du, berau eraberritzeko «dirurik ez baitago».



«Nire ustez Zumardiaundia Tolosak eduki duen zor historiko bat da»

«Bere garaian herritik urrundu zen eremu bat berriro berreskuratu egin nahi dugu»

«Proiektu hau definitzen ikastetxeetako haurrek ere parte-hartze zuzena eduki dute»

JOKIN BILDARRATZ  
Tolosako alkatea



«15.600 metro karratuko berdegune batetaz hitz egiten ari gara; jendeak erabiltzea nahi dugu»

«Parkearen erdiko eremua lorategi handi bat izango da, 'egongela berde' bat»

«Egun ezagutzen ditugun harrizko bankua, iturria... parkearen izaera hori, mantendu egingo da»

URRE PEÑAGARIKANO  
Tolosa 2015 saileko arduraduna



«Igerilekua eta Tolosana paper fabrikarekin gertatuak ingurunearen berrantolakuntza ekarri du»

«15.000 metro karratu horiek bi zati dituzte: 7.000 urbazterrean eta 8.000 maldan»

«Ibaia parkearen zati bat izango da; ertzean paseatzeko bi bide egongo dira»

MANOLO JIMENEZ  
Arkitektoa



«Lorezaintza zerbitzutik Udalari zuhaitzak aldatzeko proposamena egin zitzaion»

«Tolosan zuhaitzak egotea defendatzen dugu, baina osasuntsuak»

«Manolo Jimenez proiektuarekin zuhaitzak aldatzeko une egokia zela ikusi genuen»

JOSE MARI ARSUAGA  
Goroldiko arduraduna

Tolosaldeko eta Leitzaldeko komunikabide batek  
**Kazetaritzan edota Euskal Filologian lizentziatuak**  
edo ikasleak behar dituzte  
**lan poltsa osatzeko.**

Interesatuak deitu **687 41 00 32** telefono zenbakira edo bidali curriculum-a [tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info) helbidera



# Pentsio sistemen eta lan erreformen aurkako deia

**Gizartea** » ELA, LAB, ESK, STEE/EILAS, EHNE eta HIRU sindikatuek deituta manifestazioak egingo dira larunbatean hiriburuetan.

## ESKEINE LEGORBURU (GOIERRIKO HITZA)

Espainiako Gobernuak eratu dituen lan eta pentsio sistemen erreformen aurka, kalera irteteko deia egin zuten atzo ELA, LAB, STEE/EILAS, EHNE, eta HIRU sindikatuek Beasainen eskainitako prentsaurrekoan. Bertan Tolosaldeko sindikatuen ordezkariek ere izan ziren.

Horiek horrela, erreformekiko desadostasuna adierazteko manifestazioak deitu dituzte larunbat honetarako hego Euskal Herriko lau hiriburuetan. Donostian Bulebarretik irtengo da 17:30ean.

Erretiroa 65etik 67 urtera atzeratzeko erabakiaren eta «pentsio berrietan, alargun-sarrietan eta Aldi Baterako ezintasunetan egitea aurreikusten diren murrizketen aurka» agertu zen atzo gehien-go sindikala. Egoitz Iturbe ELA sindikatuko ordezkarieren esanetan, «beste helburuetako bat erreforma laboral gogor bat da, Langileen Estatutuko artikulua alda-



LAB sindikatuko Lopetegi eta ELA sindikatuko Iturbe. E. LEGORBURU

tuz, kaleratzea errazagoa eta merkeagoa izan dadin».

Gehiengo sindikalak murrizketahoriek guztiak «arbuia» egiten dituela argitu zuten, eta «bertan behera» geratzeko eskatu zuten. Lazko maiatzaren 21ean egindako greba orokorrean esandakoaren haritik egin zituen adierazpen hauek gehiengo sindikalak, «orduan eskatutako aldaketak ez baitira bete, eta bildutako 131.894 sinadurei ez baitzaie kasurik egin».

Hala, aberastasunaren banaketa «ekitatiboa», lanpostu eta lan eskubide gehiago eta zerga-sistema «bidezkoagoa» beharrezkotzat jo zituzten sindikatuek. Pentsioen eta lan eskubideen inguruko erabakiak Euskal Herrian hartzea ere exijitu zuten.

## Krisia testuinguru dela

Erreforma hauek guztiak «krisia gogor jotzen ari den testuinguruan ulertu behar dira», LAB sindikatuko Oihana Lopetegik zehaztu zuenez, «egun langileen egoera zaila bada, are eta gehiago zailduko baitute erreforma hauek».

Eskualdeko eta inguruko herrietako egoera zein den ulertzeko datuak ere eman zituzten sindikatuek: «2009. urteko urtariletik 2010. urteko otsailerako datuak adierazten dutenez Beasainen %34 egin du gora INEMen izena eman dutenen kopuruak, Zumarragan %42 eta Tolosan %28. Honi guztiari negoziazio kolektiboan patronalek eta administrazioek duten jarrera gehitu behar diogu».

# Eskualdeko emakume ugari AndereNahiaren jardunaldietan

**Tolosa** » Udaleko Onintza Lasa eta Josebe Iturrioz izan ziren herriko eta inguruko beste emakumeekin batera.

## ERREDAKZIOA

AndereNahia Iparraldeko Emakume Elkintzaileen Elkarteak, hegoaldeko eta iparraldeko emakumeak bildu zituen jardunaldiak egin zituen iragan hilaren 18an Ezpeletan. Jardunaldietan, «berren enpresa sortu edota sortzen ari diren emakume ezberdinen esperientzia eta bizipenak elkarbanatzeko aukera izan zen», argitu du Tolosako Udaleko Berdintasuneko zinegotzi den Onintza Lasak. Zinegotziarekin batera Josebe Iturrioz teknikaria izan zen bertan, eta baita Tolosako eta inguruko beste hainbat emakume ere. Lasaren hitzetan, parte hartzea «oso aktiboa» izan zen eta 150 emakumetik gora bildu ziren Ezpeletan.

Gogoratu behar da, gisa honetako esperientziak lehen pertsonan bizi izan dituzten AndereNahiako hainbat kide Tolosan ere izan zirela otsailean hitzaldi bat ematen eta «enpresa sortzeko lan ez beti erra-

zean esperientzia zuzenak eta aholkularitza gertukoa zein beharrezkoa den kontatu» zutela. «Emakume bat, enpresa bat, bizitzabat leoa ardatz harturik, AndereNahiak, berriro ere, elkartasunetik abiatuta, enpresa munduan eta eremu pertsonalean arrakasta lortu daitekeela frogatu zuten», argitu du Lasak.

Ezpeletan bildutakoekin eta beste hainbat informazioekin batera blog berri bat ireki dutela argitu du Lasak: <http://anderenahia.blogspot.com>, nahiz eta orainarteko bloga elikatzen ere jarraitzen duten, <http://berdintasunatosakoudala.blogspot.com>.

## Denboraren Bankuaren bilera

Tolosako Berdintasun Sailak, Denboraren Bankuaren bidez, emakumeen arteko sarea ehuntzen jarraituko duela ere nabarmendu du zinegotziak, horretarako udaletxeko lokaletan bilduko direlarik gaur bertan 18:00etan.

Lasak zein Iturriozek bilerara azaltzeko gonbita luzatzen diete herritarrei, eta norbaitek informazio gehiago nahi badu 943-67 03 83 telefono zenbakira deitzeko edota [berdintasuna@tosakoudala.net](mailto:berdintasuna@tosakoudala.net) helbidera idazteko eskatu dute.



## harpidedun izateak badu saria

### ① Erromeria

Udaberri dantza taldearen Erromeriaren baitan, **afarirako ticket pare bat**

Martxoak 27 larunbata  
Tolosako zerkausian



### ② Bertso saioa

Tolosaldea Sahararekin elkarteak antolatua  
**4 sarrera pare**

Martxoak 28 igandea  
Tolosako Beotibar pilotalekuan



### ③ Sarrerak

Mokoloren omenez ospatuko den jaialdirako **sarrera pare bat**

Apirilak 17 Larunbata  
12:00etatik aurrera  
Tolosako Leidorren



### ④ Sarrerak

KEN 7 taldeak eskeiniko duen kontzerturako **2 sarrera pare**

Apirilak 23 ostirala  
20:30etatik aurrera  
Tolosako Leidorren



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zein eskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegunean, 09:00etatik 17:00etara. Saridunak larunbatean argitaratuko ditugu.

harpidedunen  
**TXOKOA hitza**

# Gaztelekua identifikatzeko baliatuko den logotipo lehiaketa martxan da

**Villabona** » Lanak aurkezteko azken eguna apirilaren 20a da eta hilaren 29 eta 30ean *Logotipe* tailerra egingo da.

## ENERITZ MAIZ

Villabonako Udalak gazteria eta Gaztelekuaren inguruan eman beharreko pausu guztietan herritarren parte hartzea bultzatu nahi duela argitu du eta ildo horretatik doa, hain justu, Gaztelekuaren proiektua. Oraingoan, Villabonako Udaleko Gazteria sailak, Gaztelekua izango den *Katea Etxea* identifikatzeko duen logotipoa sortzeko lehiaketa jarri du martxan. Lehiaketa honetan, 12-17 urte bitarteko eskualdeko gazteek parte hartzeko aukera izango dute.

Atzo arratsaldean bertan, kalera atera ziren, gazteei lehiaketaren berri eman eta oinarriak zabaltzeko helburuarekin eta ostiralean ere, 17:30etik aurrera, Errebote Plazan egongo dira informazioa jaso nahi duenarentzat.

## Lehiaketa parte hartzeko bete beharreko oinarriak

Logotipoaren diseinuarekin batera dossier bat ere aurkeztu behar da; proposamenaren arrazoibide eta ezaugarri teknikoaren azalpen gisa, diseinua hobeto ulertu eta ebaluatzeko izango da. Logotipoak, jatorrizkoa, argitaratu gabea, erraz identifikatu eta gogoratuko modukoa eta *Katea Etxea* Gaztelekuaren adierazgarria izan behar du. Lehiakideek *Logotipe* tailerrean parte hartu ahal izango dute.

Tailerraren taldea mugatua izango da eta gehienez ere 25 lagu-



*Katea Etxearen logotipo lehiaketa iragartzen duen kartela.* HITZA

nek osa dezakete. Larrea auzoa 20an, hilaren 29 eta 30ean izango da. Orduetia berriz, 16:00etatik 18:00etara eta prezio orokorra 5 eurokoa izango da.

Izena emateko azkeneko eguna hilaren 26a, ostirala izango da eta Kirol eta Gazte informazioko bulegoan eman beharko da. Asteleheneretik ostiralera, 12:45etik 14:45era eta asteartean arratsaldez bakarrik, 16:30etik 18:30era. Lanak aurkezteko azken eguna berriz, apirilaren 20a izango da eta Kirol eta

Gazte informazio bulegoan, Liburutegian edota Kiroldegian aurkez daitezke.

Bakarka zein taldeka har daiteke parte eta sari bakarra emango da. Aldiz, talde gisa aurkeztuz gero, ordezkarri bat izendatu beharko da saria talde osoaren izenaren jasotzeko. Pertsona edo talde bakoitzak, gehienez ere bi lan aurkeztu ahal izango ditu. Proposamena kartazal itxi batean aurkeztu beharko da eta kanpo aldean testu hau idatzi beharko da: *Lehiaketa:*

«*Sortu Katea etxearen logoa*» eta kartazalaren barruan berriz, honako datu hauek sartu beharko dira: diseinatutako logotipoa, proposamena azaltzen duen dossierrarekin batera. Logotipoan ez da sinadurarik jarri behar. Parte hartzailearen izenak ez du kartazalaren agertu behar, ezta logotipoan, dossierrean edota barruko inolako agiritan ere. Horiek, beste kartazal itxi batean joan beharko dute. Parte hartzailearen datu hauek beharko dira: izena, abizenak, NAN, helbidea, telefono zenbakia eta helbide elektronikoa. Halaber, taldeka aurkeztuz gero, taldearentzako sari-jardueraren proposamena sartuko beharko dute.

## Sari banaketa maiatzaren 4ean

Sari bakarra emango da, eta norbanako lehiakidearentzat, mp4 ipod nanoa izango da. Taldeko lehiakideentzat berriz, balio bera izango duen taldeko jarduera bat izango da. Jarduera horren proposamena kartazal txikian sartu beharko dute.

Saria maiatzaren 4ean 17:00etan Villabonako Udaletxeko Pleno aretoan emango da eta saritutako logotipoak Villabonako Udalaren jabetza eskusiboa izango du betiko, eta askatasun osoa izango du osorikedo zati batez erabiltzeko. Hala ere, informazio osoa eta zehatzagoa, bulegoan edota ostiralean Errebote plazan eskuragai izango da.

## » LOGOTIPO LEHIAKETA

### Informazioa jasotzeko

■ **Hilak 26, 17:30ean.** Errebote plazan egongo dira lehiaketaren oinarriak zabaltzen.

## Laburrak

### Idoia Sanchez ipuin kontalaria bihar 18:00etan

**ANOETA** » Bihar osteguna, 18:00etan hasita, Anoetako Liburutegian Idoia Sanchez ipuin kontalariaren saioa entzun eta ikusteko aukera izango da. Ipuinen mundu zoragarriaz gozatzeko aukera paregabea izango da.

### Eresargi Abesbatzaren kontzertua ostiralean

**VILLABONA** » Ostiralean hilak 26, 19:15etatik aurrera, Eresargi Abesbatzak bere ohiko kontzertua emango du Villabonako Jesusen Bihotza elizan. Bertako kide guztiek, eskainiko duten kontzertuaz gozatzeko herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte.

### Palestinaren inguruko diapositiba emanaldia

**VILLABONA** » Bihar 19:00etan hasita, Palestinako okupazioari buruzko hitzaldia izango da Villabonako gaztetxean. Diapositiba emanaldi batez lagundurik izango da eta antolatzailea, Tolosaldeko Askapena da. Hitzaldi honen harira gogoraz nahi dute hilaren 30ean BDS kanpainaren nazioarteko eguna burutuko dela eta BDS kanpainaren xedea, «Palestinari herriaren aurka ematen ari diren sarraskia geldiarazteko helburuarekin Israelgo estatuaren aurkako nazioarteko boikot, desinbertsio eta zigor kanpaina» dela.

### 'Garbo: El Espia' jatorrizko bertsoan Leidorren

**TOLOSA** » Bihar, hilak 25, *Garbo: El Espia* filma ikusteko aukera izango da Leidor Antzokian. Lehengo emanaldia 19:15ean eta bigarrena 21:45ean izango da eta jatorrizko bertsoan eskainiko dute.

# Udala eta Guraso Elkarteak gaur Legebiltzarrean

**Larraul** » Eskola Txikiaren egoera dela eta, gaur legebiltzarrean egingo duten agerraldian beraien egoera azalduko dute.

## ERREDAKZIOA

Larraulgo eskola txikiak eskola txikia martxan du 2008ko irailetik. Ikasturte hauetan ordea, Asteasu-ko Pello Errota eskolako lekualdatutako gela bezala funtzionatzen ari bada ere, irailetik aurrera, eskola txiki independente bezala funtzionatzen hasi beharko luke.

Eusko Jaurlaritzan eman diren gobernu aldaketak direla eta, Hezkuntzak hitzartu zuena ez dute bete nahi. Hori dela eta, Udala eta



2008an, Eskola Txikia inauguratu zuteneko argazkia. HITZA

guraso ordezkariak, bilera bilera dabiltza 2010-2011 ikasturtean eskola txikia izateko eta Hezkuntza Sailak adostu eta onartua duena bete dezan eskatuz.

Gaur egun, 2 eta 5 urte bitarteko 16 ikasle daude eta guztira, 12 urte azpiko ia 60 haur daude. Larraulgo eskolak etorkizuna ziurtatua duela eta, dagokien eskola izan dezaten borrokatuko dute.

## Bihar bozketa egingo dute

Ostegunean, 09:30ean hasiko da Legebiltzarrean Larraulgo eskolaren eztabaida eta bozketara eramango dutegaia.

Jarraian, Larraulgo Udala eta Guraso Elkarteak bertan gertatutakoaren inguruko balorazioa egingo dute.

# Jangeletako begiraleek gaur eta bihar greba egingo dute

## ERREDAKZIOA

Astelehenean sindikatuek patronalarekin izan zuten bilera ez ziren adostasun batera iritsi eta ondorioz, aste honetarako aurreikusita zeuden greba egunekin aurrera egingo dute eskola publikoetako jangeletako langileek.

Beste behin ere, eskola publikoetan lanean diharduten begirale eta sukaldariek beraien aldarrikapen eta eskubideengatik guztia emateko prest daudela erakutsi dute. Ondorioz, gaur eta bihar, eskualdeko eskola askotan ez da jangelaz bitzurik izango.

# Kontsumo taldea jarri nahi dute abian

**Tolosa** » Baserritarren eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena bideratzen duen modu honi buruzko hitzaldia antolatu dute Zerkausian.

**IMANOL GARCIA**

Biolur elkarteak, Tolomendik, EHNE-Gipuzkoak eta Lurgintzak bultzatuta Tolosan eta inguruan kontsumo talde bat edo gehiago sortzeko asmoa dago. Dagoeneko Tolosa eta inguruko baserritar batzuk ekimenean parte hartzeko prest daude eta horretarako hitzaldia antolatu dute gaur, 19:00etan, Tolosako Zerkausian.

Hitzaldian parte hartuko dute Mirene Begiristain EHUko irakasleak, Usurbilzen kontsumo taldea dinamizatu duen Pedro Alberdik eta Beizamako Uztaro kooperatibako Miguel Arribasek. Nekazaritza ekologikoa eta Gipuzkoan martxan dauden kontsumo taldeen inguruan ariko dira hizlariak. Bestalde, Tolosan kontsumo taldea sortzeko proposamenean parte hartuko luketen baserritarrek ere bertan egongo dira.

Kontsumo taldeen funtzionamendua erraza da: baserritarrek astero bere produktuekin osatutako otarra prestatzen dio kontsumitzaile bakoitzari, eta hauetako bakoitzak hilean behin kuota bat ordaintzen dio baserritarri.

Mirene Begiristain EHUko irakaslea da eta produktu ekologikoen komertzializazioari buruzko doktoretza tesia egiten ari da.

«Biolurrekin hartu-emanetan hasi nintzenez, proiektu ezberdinak martxan jartzen hasi ginen eta proposatzen dugun banaketa eredu ahalik eta bide motz edo zuzenak lantzea da. Kontsumo taldeak produktorentzako onura ekonomiko, ekologiko eta sozialak ekartzen ditu, eta kontsumitzaileentzat, elikadura subirotasunaren ikuspegitik, eskubide horren inguruan erabakitzeak aukera izatea».

## Kontsumitzaileei deia

Eredu hori «bai ekologikoki, ekonomikoki, sozialki eta kulturalki iraunkorra izango litzateke», dio Begiristainek eta kontsumitzaileei kontzientzia hartzerantz deitzen die: «Ikustea egun sustatzen ari garen kontsumo eta banaketa eredu eta horren aurrean gure erantzukizuna hartzea beste eredu bat bultzatzeko. Kontsumo taldeak ez dira horregatik dendaren alternatiba bat bakarrik, kontsumitzaileak ere beste era batera hartzen du konpromisoa egiten duen aukera horretan».

Usurbilgo kontsumo taldea dinamizatzen aritu da Pedro Alberdik. «Usurbilen dagoen haurrekoloko jangelan menu ekologikoa jarri zuten eta horri nolabait jarraipena emateko asmoa zuten



Usurbilen martxan jarri den Usurbilzen kontsumo taldearen bilera. NOAUI ASTEKARIA

herritar batzuk», azaltzen du Alberdik. «Udalari eskatu zioten laguntza kontsumitzaileen kooperatiba moduko bat martxan jartzeko».

Herrian baserritar kooperatiba bat badago eta «bertatik ere ikusten zen sektorearen egoera zein den eta hori irauli nahi zutela ere», azaltzen du Alberdik. Bialdeak hor zeuden eta proiektu bat martxan jarri zen ikusteko zein egoera eta nola bideratu zitekeen kooperatiba sortzeko egitasmoa. «La berrogei familiek eman dute izena eta martxan jarri dira dagoeneko. Proiektu honetan arrakasta handiena izan da hiru baserritar berri hasi direla lanean kontsumo talde honen bidez», dio Alberdik.

## Baserritarrei babesa

Tolomendi erakundeko Iker Karrerak azaltzen duenez, «Biolurrek egitasmo horrekin dituen helburuekin bat egiten dugu. Lehen sektorea garatzen lagundu dezakeen ekimen interesgarria da. Alde batetik produktorentzako ekonomikoki ona izan daitekeelako, bai marginarean aldetik eta beste salmenta modu bat ireki ahal zaialako. Kontsumitzaileen aldetik ere ona da, horrek garantia bat ematen diolako, zer jaten ari den eta nongoa den jaten ari den hori dakielako». Hortaz aparte, kontsumo taldeen dinamika beste helduleku batzuk dituela dio Karrerak: «Kontsumitzaileen eta baserritarren arteko lotura zuzenagoa izate

te ekartzen du, bi aldeen arteko konpromiso estuagoa ekartzen du. Baserritarrek ez du etekin ekonomiko bat bakarrik jasotzen, baita errekonozimendua eta babesa ere».

Iñaki Zaldua EHNEko kidea dioenez, «merkaturatzea funtsezkoa da bertako baserri jarduerak iraun ahal izateko, ikusita zer margen komertzialak dauden bestelako kate normaletan».

Tolomendik eta Biolurrek bilera izan dute udaletako ingurumen eta nekazaritza gaietako teknikariekin, «gai hau aurrera eramateko lagungarriak izan daitezkeelako». Hala, zenbait udaletatik gaurko hitzaldira joateko gonbitea egin dute.

## «Konpromiso hitza oso garrantzitsua da, gure aldetik eta kontsumitzaileen aldetik»

**ARRATE OTAEGI** | Baserritarra

**I. GARCIA**

Arrate Otaegi eta Joxerra Agirre Errezilgo Irure Txiki baserrikoak dira. Hasieran beraientzako lantzen zituzten produktuak, baina orain urte gutxi batzuk hasi ziren produktuak saltzen. Kontsumo taldea sortu nahi dute.

### Zergatik nahi duzue sortu kontsumo talde bat?

Ikusita lur eremuak jende gehiagorentzat eman dezakeela, eta gure filosofiarekin ikusita zer onuragarria den osasun eta harreman mailan bertatik eta garaian garaia kontsumitzaile gogoa etorri zitzaigun beste jendea aukera hori eskaintzeko ere. Etxerako ekoizteaz aparte, beste jende batzuentzat ere ekoizten hastea. Hortik dator kontsumo talde bat sortu nahi izatearena. Azken finean, gure ekoizpen moduarekin bat datorrenentzat ekoiztea da gure nahia. Asko baloratzten dugu ekoizlearen eta kontsumitzailearen artean elkar-



Agirre eta Otaegi beraien seme ibairekin arrautzak biltzen. GALTZAUNDI

tze bat egotea, baserria eta kalearen artean elkarlan bat izatea. Banaketa zuzena izatea nahi dugu, ahalik eta produktu freskoekin eta kontsumitzaileek jakitea zeinek eta nola ekoizten dituen. Kalitatearen aldetik, biologikoan ekoizten dugu, ahalik eta bizitasun handienarekin.

### Zer produktu dituzue?

Bezero batzuk baditugu otarrak zuzenean eramaten dizkiegunak Azpeitian, Tolosan, Anoetan eta Donostian. Gure asmoa da banakakoa izan beharrean talde bat izatea eta talde horri leku zehatz batera eramateko produktuak. Konpromiso hitza oso garrantzitsua da: gure hartzen dugu konpromisoa beraientzako ekoizteko eta beaie hartzten dute konpromisoa produktu horiek jasotzeko. Bestalde, gure ezagun batzuekin azoketara eramaten ditugu zenbait produktu. Kontsumo taldea sortzerakoan, gure lehenasuna familia bat sortzea da. Baserri eremu honek sortu dezakeen produktu kopurua kontuan hartuta, horiekin hornituko litzatekeen familia bat sortzea. Tolosa-Azpeitia inguruan sortzea gustatuko litzaziguke, ahal den gertuena. Beste aukerak badaude: dendan erostea, azoketan erostea... Kontsumitzaile batzuk nahiago izan dezakete ekoizle ba-

tekin harreman zuzena izatea, baserri erostea, esatea zer kontsumitu dezaketen, baserriko lanetan parte hartzea...

### Oraindik ez daukazue, beraz, taldea osatuta.

Ez daukagu taldea osatuta, bezero solteak ditugu. Biolur elkartearen gaude eta elkartetik ikusten dute interesgarria kontsumo taldeak sortzea zonalde ezberdinetan. Horregatik antolatu da hitzaldia, kontsumo taldeen aukera interesatzen zaion jendea informatu ahal izateko.

### Eta prest zaudete taldea sortzeko.

Bai, gu prest gaude eta beste ekoizle batzuk ere egon daitezke. Beste zonalde batzuetan egiten dira baserritarrekin bilerak. Bai ekologikoan egiten dutenekin eta ez dutenekin ere. Azken finean baserria bultzatzea da eta bertako lurretatik ateratzen denetatik elikatzeko aukera izatea.

### Zerkausiko hitzaldian izango zarete zuek ere.

Gu ere joango gara. Hizlari batzuk izango dira eta gu printzipioz entzule bezala goaz. Gero norbaitek horrelako talde batean parte hartu nahi badu, gu ere hor izango gara horri bidea emateko.





## Ibarluzearen aldekoak Londresen

**IBARRA** ● Hilaren 10ean, 25-30 lagun inguru bildu ziren Westminsterreko Epaitegiaren aurrean Garikoitz Ibarluzearen askatasuna eskatzeko. Txalaparta eta danborren soinuak entzun ziren ordubetez. Informa-

zioa ere banatu zuten, polizia mugitzeko eskatu zien arte. Epaitegi barruan abokatuek denbora gehiago eskatu zuten kasua prestatzeko. Datorren astean berriro bilduko dira bertan epaiaren eguna finkatzeko. **HITZA**

## Lapurdin arrakasta lortu ostean Goierrira doaz Alurr taldekoak

**Ibarra** » Zaldibian, bertako dantza taldearekin batera emanaldia eskainiko dute larunbatean; plazan, 19:00etan izango da saioa.



Hamaika urtetik hamabostera bitartekoek eskainiko dute emanaldia. **R. CALVO**

### ERREDAKZIOA

Urte bat eta hiru hilabete inguru igaro dira Alurr dantza taldeak *Sua* ikuskizuna aurkeztu zuenetik. Ordutik hainbat eta hainbat txoko bisitatu dituzte Ibarra dantza taldekoek, inguru gehienetan arrakasta lortuz. Martxoaren 13an Luhusoko (Lapurdi) Harri Xuri Kultur Gelan taularatu zuten lan hau. Hango dantza federazioaren eskutik antolatuta zen saioa, Euskadi-Akitalia egitasmoaren baitan. Alurr taldeko dantzariak ikus-entzuleen txalo zaparrada jaso zuten saioa amaitu orduko.

**Hurrengo emanaldia, Goierrin**  
Larunbat honetan, hilak 27, Alurr dantza taldeak hemendik kilometro gutxira ikusteko aukera izango da. Izan ere, Zaldibiako plazan bertako dantza taldearekin batera emanaldia eskainiko dute. Saioa 19:00etan hasiko da.

Dantzari gazteak izango dira denak, 11 urtetik 15era bitartekoak. Egingo dituzten dantza batzuk tradizionalak izango dira (*Agurra*, *Gipuzkoano*, *Axuri Beltzabanako*, *Alpargata*).

Bestetik, koreografia batzuk ere dantzatuko dituzte, tartean *Korteseko makil jokia* (Iñar Sastrek moldatu du musika eta Aiert Beobidek prestatu du koreografia), *Iparraldeko makil jokia* (Eider Epeldek egindako koreografia) eta fandango bat Itziar Doyharzabalek prestatutakoa.

Emanaldiaren amaieran, *Arin-*

*banako* eta *Kaxarranka* koreografiak dantzatuko dituzte Zaldibiako gazteek.

### Guraso Elkartean ekimena

Zaldibiako Guraso Elkartean antolatzen du urtero aipatutako festa, Dantzari Txiki Egunaren berperan.

Alurr Dantza taldea duela bi urtetik hona ari da festa horretan parte hartzen Ibarra eta Zaldibiaren artean sinatuta dagoen lan hitzarmen bat dela medio. Honekin bultzatu nahi dutena da, herriko gazteak dantza egiten hastea.

## Laburrak

### Irekida dago kiroldegiko abonua ordaintzeko epea

**IBARRA** ● Udak jakitera eman duenez, apirilaren 14ra bitartean, aurtengo urteari dagokien Kiroldegiko abonuari dagokien udal-tasaren ordainagiriak kobratuko dituzte. Ohartarazi dutenez, arestian aipatutako epea igaro ondoren, bide exekutiboz kobratuko dira. Hala, ber, ordainagiri horiek edozein kutxa edo bankutan ordaindu ahal izango dira.

### Trakziodun ibilgailuen gaineko zergen ordainketa

**IBARRA** ● Data hauetan ohikoa den bezala, Udala hasi da jada, trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko udal-zergaren ordainagiriak kobratzen. Epea hilaren 30era arte luzatuko da. Honenbestez, epea igaro bitartean ordaintzen ez dutenei, bide exekutiboz kobratuko dizkiete zergak, %20ko gainarguz. Ordainagiri horiek edozein kutxa edo bankutan ordaindu ahal izango dira.

### Heziketa emozionala hizpide izango da etzi

**ALEGIA** ● Adimenaren edo adimenez, apirilaren 14ra bitartean, gizarte trebetasunak, emozioa, sentimendua, adorea... lantzeko asmoz, Alegiako guraso elkarteak hitzaldiak antolatu ditu aste honetarako. Lehena atzo izan zen, eta bigarrena, ostiralean izango da. Saioa eskolako patioko liburutegian egingo dute 14:15etik 16:00etara bitartean.

### Udalbatzak Ohiko Osoko Bilkura egingo du bihar

**AMEZKETA** ● Bihar Udalen ohiko Osoko Bilkura izango da 20:30ean. Besteak beste, ondorengo gaiak jorratuko dituzte: 2010eko Plan E-rako proiektua eta esleipenerako baldintza pleguak onartzea; 2010 ekitaldirako Udal Aurrekontuak eta udaletxeko langileen talde organikoaren onartzea; Larrauldgo eskola txikiari buruzko mozioa; eta Igeldo udalerrizateko mozioa.

## Larunbatean Elkartasun Eguna ospatuko dute

**Leitza** » Gaztetxean bertso bazkariarekin eguerdian hasi eta kontzertuekin emango diote amaiera goizaldean, jaiari.

dira herritik barrena, festa Leitza guztian zehar zabaltzeko.

Ekitaldiek guerdian izango dute jarraipena. Vendetta eta Memo taldeen eskutik kontzertuak izango baitira Gaztetxean bertan. Sarrerak 5 euroko prezioa izango du, eta han bertan erosi ahal izango da.

### ERREDAKZIOA

Herriko gazte talde batek antolatuta, Elkartasun Eguna ospatuko dute larunbat honetan. Eguerdian hasiko dira ekitaldiak, eta goizaldera arte luzatuko da jada.

14:00ak aldera elkartuko dira Gaztetxean bertso bazkariarako. Menua ondorengo izango da: zizka mizkalk, haragi paella, yogurt krema, kafea eta kopa. Hara joateko txartelak Torrean erosi daitezke.

Bazkalostea herriko bertsolariak alaituko dute. Hala, nahikoa abestu ostean, kalejiran aterako

### Amaitezko, musika

Skalariak taldeko bost kide ohiek osatzen dute Vendetta taldea. Skarreggae doinuak egiten dituzte, eta parranda nahiz dantzarako erritmoak jartzen ezin hobeak dira.

Memo taldeak joan den urtean kaleratu zuen bere azken lana, *La alegria de molestar*. Punkaz, monekiaz, mugez edota guraso eta seme-alaben arteko erlazioez diharduten kantu zuzenak egiten dituzte, zentzu ironiko eta umoretsu batean, betiere.

## Hilberria

### LEONA ERAUSKIN OÑATIBIA

(Eugenio Lizarazuren alarguna)

- Goian bego -

Gabiri aldean erditu zinen Zantagoitiko Leona eta zurekin ekarri zendun etxe honta zoriona. Urmila eta langile fina zahartze eredu ona kanta nahi degu bihotz-bihotzez eskerrik asko amona.



Zure bilobak: Joxe Manuel eta Aitziber, Elena, Aitziber eta Karlos, Amagola eta Unai, Unai eta Itziar, Miriam eta Aitor, Aitor, Aloña eta Urko, Iñigo eta Naiara, Borja, Ander eta Goretzi; birbilobak: Lorea, Maren, Amane, Garazi eta Unax.

**GABIRIA**  
2010eko martxoaren 24a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko **HITZA**n jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
**DOAN** agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZAK** Gipuzkoan **120.000** irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko HITZA.info / Tel.: 943-65 56 95



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Batzarrak

■ **Amasa-Villabona. Zutik Euskal Herria** agiriaren aurkezpena egingo dute, udaletxeko pleno aretoan, 20:00etan.  
■ **Tolosa.** Galtzaundi euskara taldearen urteko batzarra Kultur Etxean, 19:30ean.  
■ **Tolosa.** Tolosaldeko Herria abian! ekimenak *Euskal Herriak al-daketa soziala!* lelopean batzar irekia egingo du Bonberenean 19:30ean, aldaketarako abiapuntua zehazteko.

### Deialdiak

■ **Tolosa.** Amartz auzoan, herri galdeketa bigarren saioa, 19:15ean, auzo elkartearen egoitzan.

### Hitzaldiak

■ **Tolosa.** Kontsumo Taldea sortzeko hitzaldi informatiboa Zerkausion 19:00etan, kontsumitzaileei zuzenduta.  
■ **Tolosa.** Amalur bidai, natur eta antropologia jardunaldiak: Ander Izagirre kazetariaren hitzaldia Topic-en 20:00etan, munduko basamortu ezberdinetan ikusitakoaz.

### Musika

■ **Tolosa.** Tolosa Kantarik antolatu, kantu entsegua Musika Eskolan (Gorosabel Zaharrea), 20:00etatik aurrera.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Moraut, R. Zabalaretza, 1.943 67 36 49.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. 112

### » IRRATIA

**Txolarre Irratia (FM 107.5 eta 101.2)**  
**11:00.** Tolosaldeko Ahotsa: albistegia, magazina, lehiaketa eta disko eskainiak. **13:30.** Info 7: eguerdiko albistegi nagusia. **14:00.** To-

losaldeko Ahotsa: albistegia. **16:00.** Arrosa: BERTAKO (HBI). **17:00.** Kabitik Plazara. **18:00.** Tolosaldeko Ahotsa (errepikapena): magazina eta albistegia. **20:00.** Info 7: Iluntzeko albistegi nagusia. **21:00.** Bide Okerretik.

### » TELEBISTA

**28 Kanala**  
**08:30.** Ur eta lur. **09:00.** Alex eta Alexis. **09:30.** Tolosaldean Gaur. **10:00.** Gipuzkoa Encounter. **10:30.** Ilunpean. **11:00.** Erlo klip **11:30.** Tolosaldean Gaur. **12:00.** La Betty Travan. **12:30.** Zahar berri. **13:00.** Muka muka. **13:30.** Tolosaldean Gaur. **14:00.** Gipuzkoa Encounter. **14:30.** Ilunpean. **15:00.** Erlo klip. **15:30.** Tolosaldean Gaur. **16:00.** La Betty Travan. **16:30.** Zahar berri. **17:00.** Muka muka. **17:30.** Tolosaldean Gaur. **18:00.** Erlo Jazz. **18:30.** On ein! **19:00.** Planik bai. **19:30.** Tolosaldean Gaur. **20:00.** Kultur zulo. (16:30etik aurrerako blokea 4 ordu errepikatuko da)

HITZAK ez du bere gain hartzen eungarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



## Kontsultaren ondorioak plazaratzen

**TOLOSA** • Urtarrilean kontsulta egin zuten Amartzten, auzorako dotazio plan bat egiteko. Asteburu bat hartu eta espazio bat egokitu zen kalean, amartzarrek beren iritzia emateko auzoko eta herriko gai desberdinei buruz. Bi egun horietan partaidetza «arrakastatsua» izan zen. Ehunka bizilagun azaldu ziren parbula-

rioko aterpera eta modu aktiboan hartu zuten parte: idatzizko 525 ekarpen bildu zituzten bertan; 442 auzoari begira eta 83 herri osorako. Orain kontsultaren emaitzak plazaratzen hasi dira. Atzo lehen jardunaldia burutu zuten eta gaur bigarrena egingo dute, 19:15etik 21:00etara, Auzoetxean. I. AMAZ

## A Agurrak

agurrak

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

**902-82 02 01**

(Asteunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

[www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

eraman/bidali izen-emate orria:  
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>